



ARABA EUSKARAZ



ikastolen elkarteak

2020 AMURRIO



Lehen Araba Euskaraz (Arabako Ikastolen jaia) 1981ean jarri genuen abian, eta ekimena sortzeko arrazoiek bere horretan diraute gaur egun::

- Euskara eta euskal kultura ardatz duen ekimena da.
- Ikastolen proiektua ezagutarazteko eta aurrera begirako erronkei ekiteko baliabideak lortzeko ekimena.
- Auzolanean egiten den ekimena, ikastolako komunitatearen eta herriko eta eskualdeko eragileen arteko elkarlanean oinarritua.
- Parte-hartzailea, anitza, inklusiboa. Herri osoari zabaldua.

EGUNEKO JAIA:

Urte osoko dinamikari egun bateko jaialdian ematen zaio bukaera. Edizio honetan ekainaren 14an, Amurrion, izango da jai-egun hori.

Araba Euskarazek euskal kultura eta hari lotutako usadio edota ohituren plaza erraldoia eskaintzeko ahalegina egiten du: kultur ikuskizunak, gastronomia, kirolak... giro alaitzuan euskaltzaleon topagune bihurtuta.

ARESKETA IKASTOLA




1977. urtean Amurrioko guraso talde batek ezinezkoa zirudiena egia bihurtu zuen egitasmoa da Ikastola. Euren seme-alabei kalitatezko hezkuntza eskaintzea eta berau euskaraz izatea helburu, egun, Aresketa Ikastola denaren hazia erein zuten, garai hartan, Euskal Herriko beste eskualdeetan bezalaxe, abian zegoen mugimenduarekin bat eginez.

Hasierak ez ziren inondik ere errazak izan. Gaur egun, ordea, erabat sendotutako egitasmoa da gurea:

- Herri Onurakoa izendatutako Irabazi Asmorik Gabeko Kooperatiba Elkartea dugu.
- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 650 ikasle baino gehiago ditu.
- Euskal Herriko Ikastolen elkarteko partaide da.
- 2 urtetik 16 urte bitarteko kalitatezko heziketa integrala eskaintzen du: euskalduna, inklusiboa, eskualdeari lotua eta ikaslea zein familia erdigunean jartzen dituen, ikasleen garapen akademiko zein pertsonalaz arduratuta.
- 420 familiak, 670 ikaslek eta 75 langilek sostengatzen duten proiektua da.

Proiektuak aurrera darrai!





Ikastolak Euskal Herri osoa hartzen duen erakunde batean bilduta gaude. 110 ikastolatan, 4.500 irakaslek, 500 langile ez irakaslek, 56.000 ikaslek eta parte hartze zuzena duten haien gurasoek osatzen dugu ikastolen komunitatea. Eskaintza integrala dugu.

- Euskalduna. Euskaratik mundura!

Ikastolan euskaraz bizi gara, eta euskaraz bizi nahi dugu Euskal Herrian. Euskaraz munduratzeko gara, eta mundua euskaraz ekartzen dugu ikastolara. Euskal Herritik mundura goaz, euskaratik, euskaran ardaztutako eleaniztasunarekin, gure hizkuntza proiektuarekin.

- Herritarra. Herritik sortuak, herriarentzat.


Hezkuntza zerbitzu publiko gisa ulerturik, herritarrengandik hurbilen dagoen erakundetza da ikastolak. Hezkuntza ulertzeko eredu propioa du, herriari eta herritarrei atxikia, haien zerbitzura.

- Euskal Herrirako eredua da ikastola.

Euskal curriculumean eta konpetentzietan oinarritua marko pedagogiko propioarekin, euskal curriculumean eta konpetentzietan oinarritzen da, gaur egun, ikastola eredu. Hizkuntzen trataera integral eta integratua garatzen du, euskaran ardazturiko planteamenduarekin.

Arlo guztietan txertatzen ditu oinarritzko konpetentzia orokorrak eta konpetentzia digitala. Bikaintasuna ulertzeko modu bakarra dauka ikastolak: ikasle guzti guztien hobekuntza. Hezkuntza eraldatzen, gizarte eraldatzeko; gizarte justuago, parekideago, euskaldunago eta zoriontsuago bat eraikitzeko.





Aurtengo edizioko logotipoa sortzeko prozesuan, ikastolako komunitateko 100 kidek baino gehiagok parte hartu dugu (ikasle, irakasle, guraso eta ikasle ohiak), eta Ikastolen Elkarteko diseinu taldekoen laguntza izan dugu. Bertan, Araba Euskaraz honetarako zehaztutako helburuen hitz esanguratsuak sailkatu eta haien esanahia irudikatzeari ekin genion.

Jasotako uzta oparo horretatik aukeratu dugu Amurrioko 2020 Araba Euskaraz irudikatuko duten logotipoa.

LELOA ETA LOGOA



Proposatutako lelo eta mezu nagusietatik abiatuz, ideia esanguratsuenak hartu eta hitz bakarrrean jarri eta gero, hitz guztien mapa osatu zen dekostrukzio ariketa bati ekinez.

EH AHOA
ZUBIA
HIBKINTZA
BARAUKOA
DOR-DOR
ATSEGIN
JGARIN ASKO
BOR-BOR
ERABILERA
KANPORA
GAUR BIHAR
ATZO
ORAIN
MOMENTUA
AMETSA
ATERA
BULTZADA
ERAMAN
ARABA
HERRIA
IZAN NORTASUNA
GIZARTEA
BERDUA



“Ernetzen ari den haziak berez dakar landare bihurtzeko behar duena. Beraz, zabaldu eta haz dadin batu dezagun lurra, uraz zipriztindu, eguzkiaren bero eta argiz goza eta ongarriz aberastera goazen!

Baina hazi bakoitzaren beharrei erre egon behar dugu: berak adieraziko digu noiz eta zenbat ur behar duen ez itotzeko, noiz behar duen beroa erre gabe, finean noiz dagoen aseta, bapo, gustura”.

Metafora horretatik abiatuta, ikastolan gure Haur Hezkuntza proiektua eraldatzen ari gara. Hazi horretatik, ordea, landare oso bat bihurtzeko bidea marraztua dugu, ikaslearen garapen propioan oinarrituta, alegia, ikastola uzten dutenean gure ikasleak zer nolako pertsonak izatea nahi dugun horretan oinarrituta, landarea osasuntsu hazteko behar duen testuinguru egoki sortuz.

Landare osoak irudikatu ditugu logotipoan, beren loreekin, kolore eta tamaina desberdinekoak, denok garelako desberdin, denok bakar. Ezberdintasunean berdinak, denok bizi garelako elkarrekin, eta denok egiten dugulako herri hau.



DARABA...ZER?



DARABAGU

Amurrio eta Aiaraldea osoa mundura euskaraz eramaten dugula adierazteko erabiltzen dugun aditz trinko berria.

Izango den euskara irudikatzea nahi dugu. Gazteek, arbasoengandik jasotako hizkuntza, eraldatzen dutena beti erabilgarri suertatzeko. ARABA + EUSKARAZ ERAMAN arteko hitz jokoa.



Nolakoa behar du izan Araba Euskaraz honek? Zer bultzatu nahi dugu ekimen honen baitan? Loreak bailiran, hauexek dira Araba Euskaraz-ek ureztatu nahi dituen haziak:



- Euskararen erabilera sustatzeko testu-
guruak sortzea Amurrion.
- Balio positiboen lanketa: genero berdintasuna,
inklusioa, jasangarritasuna edo tokiko ekono-
mia bultzatzea, jantokiko eredu berriarekin
bat eginez.
- Eredu berritzaile eta eraldatzailea izatea.
- Parte hartzailea, hezkuntza komunitate
osoaren auzolana. Herritik sortua eta herria-
rentzat.
- Amurrion zein eskualdean errotua, eragile
izan euskalgintzaren eremuan.
- Kulturzalea izatea, kulturekintza ekosistema
gisa ulertuta, ekosistemako atal guztiak elika-
tuz: sorkuntza, plazak, komunikazioa, transmi-
sioa...
- Gazteen parte hartzea bultzatzea, beraiek
protagonista diren dinamika sortuz.



Eta horien artean, nagusiki, honako hauek zehazten ditugu ikastolan:

- Ikastolako berrikuntza pedagogikoa indartu: Haur Hezkuntzako proiektu integralaren eraldaketa prozesurako egindako inbertsioari aurre egin, eta hasitako bideari Lehen Hezkuntzan segida eman. Horretarako beharrezko egokitzapenak egin beharko dira lehen zikloan.
- Euskararen erabilera eta ahozkotasuna sustatzeko ekimena, jadanik martxan dagoen irratia egitasmoa indartuz. Ikastola osoan proiektu integral gisa landu HH-tik DBH-raino, horretarako beharrezkoak diren inbertsioak eginez ekipazioan zein dinamizazioan.
- Ikastolako kanpoko aldea eraldatu eta egokitzapenak egin, ingurune hezitzaile bihurtzeko. Prozesu parte-hartzaile baten bidez, hezkuntza komunitate osoaren iritziak jaso eta diagnosia egin lehenbizi, ondoren ideia ezberdinak landu eta proposamena diseinatu eta gauzatzeko.





Amurrio herria Arabako ipar-mendebaldean dago, Euskal herrian. Iparraldean, Laudioko haranarekin egiten du muga; hegoaldean, Bizkaiko Urduña herriarekin; ekialdean, Zuiarekin eta mendebalean, Aiararekin eta Urduñarekin.

Herrigune nagusiaz gain, Administrazio Batza gisa diharduten bederatzi herrigunez osatuta dago Amurrio udalerria 1976az geroztik: Aloria, Artomaña, Baranbio, Delika, Larrinbe, Lezama, Lekamaña, Saratxo eta Tertanga.

Gaur egun 10.000 biztanletik gora du, eta dentsitatea 100 biztanlekoa da kilometro koadroko. Ingurune natural ederraz inguratuta, industria, lehen sektorea eta zerbitzuak dira bere errealitate sozioekonomikoaren ardatzak.

Euskararen egoerari dagokionean, Amurrioko herritarren % 53,3k daki euskaraz, horien artean %19,6k ulertzen du euskara baino ez du hitz egiten eta %33,7 hitz egiteko gai da. Gazteen artean ehuneko horrek gora egiten du, %87,5raino, hain zuzen.

Beraz, potentzial handiko aukera dago euskararentzat Amurrion, eta Araba Euskaraz badator potentzial hori errealitate bihurtzera, horretarako aproposak diren testuinguruak bultzatuz.




AIARALDEA



Aiaraldea, Araba eta Bizkaiaren arteko mugan dagoen eskualdea, Gorobel mendilerroaren eta Gorbearen magaletan zabaltzen dena, Nerbioi ibaiak erditik zeharkatua.

Amurrioz gain, Laudio, Urduña, Artziniega, Aiara, Okondo, Orozko, Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldo udalerriek osatzen dute. Eskualdean 42.000 lagun bizi dira, gehienak Laudio eta Amurrio herrietan. Euskararen egoerari dagokionean, Aiaraldeko herritarren %57,8k euskara ulertzen du eta 35 urtetik beherakoen artean %91,6k.





DARABAGU

ARABA EUSKARAZ 2020 AMURRIO

EKAINAK 14

